

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jose Ramon Arriaga Kortabitarte

*Gizaburuaga,
Bizkaia (1954)*

Aurkibidea



Biografia



Jose Ramon Arriaga 1954an jaio zen Gizaburuagan, Okamika auzoko Okamika Behekoa baserrian. Ama bertoko baserrikoa zuen eta aita Amorotokoa. Hiru anai-arrebetatik nagusiena da. Gizaburuagako eskolara joan zen 12 urte bete zituen arte eta handik Markinara joan zen Laboralera, ofizio bat ikastera eta ondoren Arrasatera maestria bat egitera eta elektrizista bezala jardun du lanean. Jesus Mari Arriaga anai gazteagoarekin elkarrizketatua izan da.

Zintak

GIZ-012

- **Proiektua:** Lea Ibarreko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sapsootham, Itziar
- **Data:** 2025-11-25
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. Izeba Venezuelan

- **Erref:** GIZ-012/006
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:04:09. **Bukatu:** 00:05:45

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Izeba bat Venezuelara joan zen bizitzera baina orain dela urte batzuk bere bi alabekin Euskal Herrira bueltatu zen. Izeba osasunez makal zegoen eta hemen osasun-aukera gehiago izateko bueltatu ziren. Izena hil zen eta alabak Euskal Herrian bizi dira. Gurasoek euskaraz egiten igiten irakatsi zieten.

2. Manso de Zuñiga familiako maizterrak

- **Erref:** GIZ-012/009
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:06:21. **Bukatu:** 00:08:59

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Okamika baserrian jaiotakoa da bera eta gurasoak maizterrak izan dira beti. 1980 inguruan erosi zuten baserría. Ugazabak Lekeition bizi ziren. Santo Tomasetan amak ortuko gauzak eta animaliak eramaten zizkien. Urtean behin simaurra eramaten zitzairen eta hortaz gain, errenta ere ordaintzen zuten, dirutan. Manso de Zuñiga familia zen baserriaren jabea eta Gizaburuagan beste hainbat baserri, errota eta burdinola zituzten.

3. Markinako Laboralean eusakraz

- **Erref:** GIZ-012/010
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:08:59. **Bukatu:** 00:10:00

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Hamabi urtera arte Gizaburuaga eskolan ikasi zuten biek, dena gaztelaniaz. Gero Markinara joan ziren Laboralera eta bertan euskarazko eskolak jasotzen zituzten.

4. Gizaburuagako garai bateko eskola

- **Erref:** GIZ-012/012
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:10:07. **Bukatu:** 00:11:30

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskolako lehenengo urteetan maistra gogor bat izan zuen Jose Ramonek. Euskaraz egiteagatik zigortzen zituztenik ez du gogoratzen. Eskola udaletxe azpian zegoen.

5. Cara al Sol abestu behar eskola amaitzean

- **Erref:** GIZ-012/013
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:11:30. **Bukatu:** 00:12:30

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskolara sartu aurretik Espainiako bandera agurtu behar izaten zuten eta amaieran Cara al Sol abestu. Ikuskaritzakoak joaten ziren noizean behin eskolara.

6. Hauts-esnea edaten zen eskoletan

- **Erref:** GIZ-012/014

• **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:12:30. **Bukatu:** 00:14:27

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Ameriketatik ekarritako hauts-esnea banatzen zen eskoletan. Bilbotik etorritako Castrejana izeneko maistrarekin, esnea kakaoarekin edaten hasi ziren. Ez zitzairen esne hura gustatzen eta bota egiten zuten, etxean esne ona zutelako noiznahi. Frankismoak sortutako kanpaina bat izan zen.

7. Goserik ez Gizaburuagan baina Lekeition bai

- **Erref:** GIZ-012/015
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:14:27. **Bukatu:** 00:17:25

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Beraiek ez dute goserik ezagutu baina badakite Lekeitiotik jendea joaten zela inguruko baserrietara janari eske. Ogi-zuri gosea zegoela kontatzen dute.

8. Baserrian urik ez

- **Erref:** GIZ-012/017
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:17:35. **Bukatu:** 00:19:22

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Bilbotik lehengusu batzuk joaten ziren beraien baserrira batzuetan. Bainatzeko eta edateko ura kanpotik ekartzen zuten eta behin, lehengusu batek ur beroa eskatu zuen bainatzeko. Jose Ramonek txapan zegoen ura bota zion gainetik.

9. Baserrira ur-korrontea heldu zenean

- **Erref:** GIZ-012/018
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:19:22. **Bukatu:** 00:21:01

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Jesus Marik bost urte zituela baserrian ur-korrontea jarri zen. Dutxa ere jarri zen, baina ura hotza zegoen hasieran. Arropak garbitokian garbitzen ziren horren aurretik eta lixiba errekan egiten zen.

10. Pascual Abaroak iturriak jarri zituen Gizaburuagan

- **Erref:** GIZ-012/019
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:21:01. **Bukatu:** 00:22:28

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Pascual Abaroak, Gizaburuagako auzo bakoitzean iturri bat jarri zuen. Ondorioz, garbitokiak eta askak eraiki ziren iturri horien atzean. 1888an jarri zituzten iturriak.

11. Garai batean herrian elektrizitaterik ez

- **Erref:** GIZ-012/020
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:22:28. **Bukatu:** 00:23:57

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

<p>Baserriaren argia karburoarekin ezagutu dute. Gero, "Urgitxi" izeneko ur-saltoan zentral elektriko bat eraiki zen baina oso elektrizitate gutxi ematen zuen. Kanean bi farol zeudela gogoratzen du Jesus Marik baina batzuetan ez zituzten pizten.</p>

12. Gizaburuagako garai bateko abadeak

- **Erref:** GIZ-012/023
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:25:00. **Bukatu:** 00:27:28

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Doktrina euskaraz jaso zuten eta lehenengo jaunartzea egiteko amarekin ikasi zituzten testuak. Abadeak zorrotzak ziren eta beldurrez ibiltzen ziren. Amuriza abadearekin doktrinaz gain beste gauza batzuk ere egiten zituzten: ipuinak kontatu, motorrean ibili, irteerak egin...</p>

13. Igandero mezetara

- **Erref:** GIZ-012/024
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:27:28. **Bukatu:** 00:28:20

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

<p>Sarri joaten ziren konfesatzera eta mezetara igandero. Egunero egoten zen meza.</p>

14. Herriko lehenengo telebistak

- **Erref:** GIZ-012/025
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:28:20. **Bukatu:** 00:29:21

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

Gizaburuagan bi taberna ezagutu dituzte. Jaietan erromeria egoten zen. Tabernetan ez zegoen telebistarik. Abade etxean bazegoen bat eta herriko lehenengo telebista Largo izeneko batek jarri zuen eta gero alkateak.

15. Bizilagun berri-lapiko eta marmartiak

- **Erref:** GIZ-012/026
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:29:21. **Bukatu:** 00:30:38

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

Abade etxean jarri zen herriko lehenengo telebistetako bat eta errosario ostean Bonanza ikusten gelditzen ziren. Joxepa izeneko bizilagunak errieta egiten zien. Haurrak kontrolatzen zituzten horrelako beste auzotar batzuk ere bazeuden.

16. Gizaburuagan bi taberna

- **Erref:** GIZ-012/027
- **Iraupena:** 0:00:31. **Hasi:** 00:30:38. **Bukatu:** 00:31:09

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

Herrian bi taberna zeuden. Bat Etxe Zaharra zuen izena. Besteak ez zuen izen zehatzik.

17. Markinan eta Arrasaten goi-mailako ikasketak

- **Erref:** GIZ-012/029
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:31:51. **Bukatu:** 00:34:09

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

Laburpena:

Markinan ikasten hasi zirenean, taxian joaten ziren bertara. Bideak ez ziren onak. Barnetegian gelditzen ziren Markinan eta ofizial izateko ikasi zuten. Ondoren, Arrasaten bukatu zituzten ikasketak.

18. Gurasoak baserritik bizi ziren

- **Erref:** GIZ-012/031
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:34:21. **Bukatu:** 00:35:36

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Gurasoak baserritik bizi ziren. Hiru seme-alaben goi-mailako ikasketak eta barnetegiak ordaindu zituzten baserriko lanekin.

19. Lekeitioko Jai klub diskoteka

- **Erref:** GIZ-012/033
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:35:47. **Bukatu:** 00:39:04

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Beste lokal batzuk
- Aisia » Jai-giroa

Laburpena:

Gaztetan jairik-jai ibiltzen ziren inguruko herrietan. Oinez joaten ziren Amorotora, Aulestiara, Mendexara... Diskotekara Lekeitioko Jai Klub-era joaten ziren. Beste batzuk Veneziara joaten ziren eta gero Txitxarrora ere. Lekeition bazen beste lokal bat ere Kabaua deitzen zena. Garai batean kopak edaten ziren eta gaur egun ez horrenbeste.

20. Abade-etxeko logelan diskoteka

- **Erref:** GIZ-012/035
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:39:40. **Bukatu:** 00:41:15

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Beste lokal batzuk

Laburpena:

<p>Abade-etxeko logelan diskoteka bat antolatzen zen eta tokadiskosean musika jartzen zuten. Dantza egiteko musika jartzen zuten gehienbat.</p>

21. Francoren heriotza eta ondorengo egoera

- **Erref:** GIZ-012/036
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:41:15. **Bukatu:** 00:43:44

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Francoren heriotzaren eguna gogoratzen dute. Alderdi politiko ugari plazaratu ziren. Askatasuna lortuko zela pentsatzen zen baina ez zen horrela izan. Gaur egungo Francoren erregimena goraipatzen dituztenei buruzko gogoeta egiten du Jesus Marik.

22. Frankismo garaiko poliziak

- **Erref:** GIZ-012/037
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:43:44. **Bukatu:** 00:45:30

Gaia(k):

- Lanbideak » Polizia

Laburpena:

Etxean ez zen politikari buruz asko hitz egiten baina kontziente ziren diktadura batean bizi zirela. Kaleetatik guardia zibila ibiltzen zen asko. Telebistak ugariten hasi zirenean ere, kanpoan gertatzen ziren liskarrez ohartzen ziren. Frankismo garaiko poliziak: guardia zibilak, grisak, marroiak... Diskoteketan ere polizia sekretua ibiltzen zen eta neskak ikaratzen zituzten.

23. San Juanetako sinesmenak eta ohiturak

- **Erref:** GIZ-012/041
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:47:38. **Bukatu:** 00:49:25

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Trumoiaren kontra, amonak kandela bat pizten zuen. San Juanetan "kargia" prestatzen zuten.

24. Ereinotzez egindako gurutze bedeinkatua

- **Erref:** GIZ-012/042
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:49:25. **Bukatu:** 00:50:49

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Aste Santua
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>Aste Santuan, ereinotzarekin egindako gurutzeak egiten ziren eta abadeak bedeinkatzen zituen. Ondoren, baserriko soro bakoitzean bat jartzen zen.</p>

25. Hondartzarako zaletasun gutxi

- **Erref:** GIZ-012/044
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:51:37. **Bukatu:** 00:53:06

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

Umetan ez ziren erre kara joaten bainatzera. Karramarroak hartzera joaten ziren bakarrik. Hondartzan ere belaunetik behera bakarrik bustitzen ziren.

26. Umeak eta emakumeak ez ziren tabernara joaten

- **Erref:** GIZ-012/046
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:53:32. **Bukatu:** 00:55:10

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Garai batean umeak ez ziren tabernara joaten. Ez zegoen debekatuta baina ez ziren joaten. Hamabi urterekin Markinara ikastera joan zirenean hasi ziren tabernetara joaten arratsaldetan. Emakumeak ez ziren tabernara joaten, jaietan eta erromerian bakarrik.

27. Garai bateko Gizaburuagako jaiak

- **Erref:** GIZ-012/050
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:57:09. **Bukatu:** 01:00:27

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

<p>Gizaburuaga nola aldatu den kontatzen dute. Frontoiak ez zuen teilaturik. Jaietan musikariak ekartzeko eskuz egindako txosna bat eta eszenatoki bat eraikitzen zuten. Jende asko kanpotik etortzen zen eta gonbidatuak izaten zituzten. Aitak bildots edo ardi bat hiltzen zuen orduan. Gabonetan etxeakoak bakarrik biltzen ziren eta bisigua jaten zuten.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-24

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com